

51 BIZKAIKO AURRESKU 2011 TXAPELKETA

III. Ondizko emakumezkoen Aurresku Txapelketa



Irailak 11 (19:00)
Ondizko probalekua

Leioa Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak, Txikiak Txiki eta Gure Ohiturak herriko dantza taldeekin batera, Bizkaiko Aurresku Txapelketaren 51. edizioan parte hartzera gonbidatzen zaituzte. Hona hemen lehiaketaren oinarriak:

1. Txapelketa Ondiz-en egingo da, irailaren 11n, igandea, arratsaldeko 7etan.

2. Lehiaketak bi modalitate izango ditu: Emakumezkoen Aurreskua eta Gizonezkoen Aurreskua

3. Aurreskua dantzatzeko duten neska-mutilek parte hartu ahal izango dute eta horretarako baldintza bakarra ohiturak agintzen duen bezala jantzita joatea izango da.

4. Aurrekulariak aurreskuaren lau zati dantzatu beharko dute, parte hartzaile guztiak dantzatu ondoren, eta puntu guztiak batu eta gero, epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da.

5. Bi maila ezarri dira modalitate bakoitzeko: 16 urte baino gutxiagoko aurresku-dantzariak eta aurresku-dantzari nagusiak (16 urte baino gehiagokoak).

6. Izena posta bidez eman ahal izango da (honekin batera bidaltzen dugun izen fitxa bete ondoren edo bestela honako datu hauek agertzen diren agiria bidali beharko da: izena eta abizena, helbidea, telefono zenbakia eta zein dantza taldeko kidea den) baita posta elektronikoz ere. Lehiaketa egunean bertan ere eman ahal izango da izena Ondizen, 17etatik 18etara.

7. Ekitaldian zein ordena jarraituko den erabakitzeko zozketa egingo da, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

8. Euskal Herriko musika eta dantzekin harremana duten lagunek osatuko dute epaimahaiak eta aurresku dantzari bakoitzari puntuak emateko honako hauek hartuko dituzte kontuan: bizkortasuna, konpasa edo erritmoa, nola puntuetan dute edo zein urrats jarraitzen dute eta aurkezpena edo jantziak. Parte hartzaileak lortu duen puntuazioa altuena eta baxuena alde batera utzi eta gainerako puntuen artean batz bestekoa egitetik aterako da. Leioako Udaleko Kultura teknikari bat izango da idazkari eta berak egingo du lehiaketaren akta.

9. Epaimahaiak estiloa, erritmoa eta Bizkaiko dantza-pausuak kontutan hartuko ditu.

10. Epaimahaiak erabakitakoari ezin izango zaio aurka egin eta oinarri hauen gaineko zalantzen bat izanez gero edo lehiaketan ustekaberen bat gertatuz gero, gaizki ulertze edo ustekabe horien gainean epaimahaiak erabakia hartuko du. Epaimahaiaren irizpidea izango da une oro kontuan hartuko dena.

11. Bi kategorietarako ondoko sari hauek ezarri dira. Beren beregi adierazi da parte hartzaile bakar batek ere ezin izango dituela bi sari jaso:

EMAKUMEZKOEN MODALITATEA:

NAGUSIEN MAILA:

1. saria: 450 €, garaikurra eta zapia
2. saria: 300 € eta garaikurra.
3. saria: 150 € eta garaikurra.

GIZONEZKOEN MODALITATEA:

NAGUSIEN MAILA:

1. saria: 450 €, garaikurra eta txapela.
2. saria: 300 € eta garaikurra.
3. saria: 150 € eta garaikurra.

Modalitate bakoitzean saririk jaso ez duen Leioako aurresku-dantzari hoberenarentzat: "Leioako Udala" sari berezia.

Aurrekulari guztiak 50 € jasoko dute, dieta modu

12. Lehiaketan gerta daitezkeen ustekabeak direla eta, edo lehiaketaren beharizanak direla eta antolatzaileek lehiaketaren egitura aldatzeko eskubidea izango dute. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso osorik onartzea esan nahi du.

GUREKIN IZANGO ZAITUGULAKOAN, JASO GURE AGURRIK ADEITSUENA.

Informazioa:

KULTUR LEIOA
Tfno.: 94 607.25.78
Fax.: 94 607.25.79
Jose Ramon Aketxe Plaza,11
48940 LEIOA (Bizkaia)
kultur@leioa.net
www.kulturleioa.com

GAZTEEN MAILA:

1. saria: 200 € eta garaikurra.
2. saria: 150 € eta garaikurra.
3. saria: 100 € eta garaikurra.

GAZTEEN MAILA:

1. saria: 200 € eta garaikurra.
2. saria: 150 € eta garaikurra.
3. saria: 100 € eta garaikurra.

IZENEMATEKO ORRIA

IZEN-ABIZENAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____ P.K. _____

TELEFONOA _____ E-MAIL _____

JAIOTZE DATA _____ SINADURA _____

EMAKUMEZKOEN MODALITATEA

GAZTEEN MAILA

GIZONEZKOEN MODALITATEA

NAGUSIEN MAILA